



100 urte ondarea gordetzen

ARTXIBOA ▶ Gipuzkoako Artxiboak mendea bete du Tolosako San Frantzisko pasealekuan; bisita gidatuak daude gaur

KONPROMISOA ▶ Ondarea zaintzeko eta ezagutzera emateko konpromisoa berretsi dute Gipuzkoako agintariek ▶ 2



Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak atzo Artxiboan izan ziren mendeurrenari buruzko prentsaurrekoa emanez; gaur jendearentzako atea irekita izango dira. MADDI SOROA

LEITZA ▶

Saharako haurrak joan dira etxera, oporrak hemen pasata

Atzo abiatu ziren herrian izan diren bost haurrak Tinduferan ▶ 7



Saharako haur taldea atzo etxera abiatu aurretik. JAIONE ASTIBIA

IBARRA ▶

Jubilatuen festak, bihartik aurrera

Jokoak eta dantza igandera arte ▶ 6

KULTURA ▶

M. SOROA- L. MONTES

Artxiboaren ondarea, denona

Gaur bete dira ehun urte Gipuzkoako Artxibo Orokorra San Frantziskoko eraikinean kokatu zela; ondarea zaintzeko eta ezagutarazteko konpromisoa berretsi dute

Duela ehun urte, gaurko egunean, irailaren 8an, zabaldu zituen atek Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Tolosako San Frantziskoko pasealekuan. Mendu-rena ospatzeko, «Artxiboa gipuzkoarregana gerturatzeko» eta «Gipuzkoako ondare dokumentala zaindu eta ezagutzera emateko arduraren konpromisoa berritzeko» zenbait ekitaldi antolatuta ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Atzo prentsarako bisita gidatuak eta ekitaldia izan ziren; gaur, berriz, herritarrei azalduko diete Artxiboan egiten den lana eta jasotako ondarea.

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia, Gabriela Vives Ondare Historiko-Artistikoaren, Artxiboaren eta Museoen Zerbitzuko burua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Jose Ignacio Fortea Kantabriako unibertsitateko Historia Modernoko katedraduna eta Susana Truchuelo ikertzailea agertu ziren, atzo, jendaurrean.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra lurralde osorako duen garrantzia azpimarratu zuen Vivesek: «Gipuzkoako ondarea mantentzeko eta bizirauteko lan handia egin da hemen». Era berean, lanean jarraitzeko asmo tinkoa agertu zuen: «Etengabeko ahalegina egiten dugu garai berrietara egokitzeko. Fondoak era guztietako jendeak erabil ditzan nahi dugu; azken finean, guztiona baita ondare hau».

Bildarratz alkatearen esanetan, «Artxiboa Tolosak Gipuzkoarentzako duen garrantzian beste erakusle bat» da. Zentzu horretan, Gipuzkoa «hiri handi bat» bezala ikusi behar dela adierazi zuen, «unibertsaltasuna bultzatu» eta «tolerantziak eta izpiritu zabalekin jokatu».

«Artxiboak oroitzapena esan nahi du, eta oroitzapena nortasuna da» hasi zuen, ondoren, bere jarduna Gonzalez de Txabarri. Diputatu nagusiaren iritzi, «Oroimena gure nortasun pertsonal eta kolektiboaren osagaia da. Etorkizunari begira gaude. Etorkizunari begira gure nortasunaren ikuspegitik, gure erroen ikuspegitik. Gure iraganaren muina hemen dago gordeta, milaka dokumenturen mintzo isilean;



Ezker-eskuin: Vives, Truchuelo, Gonzalez de Txabarri, Bildarratz eta Fortea, atzo, jendaurrean. MADDI SOROA

Dokumentu gaixoen sendagileak

«Hau klinika bat bezelakoxea da. Dokumentu gaixoak sendatu egiten ditugu, biziraun dezaten eta funtzionalitatea itzultzeko». Halaxe azaldu zuen Artxiboaren laborategiaren lana Pedro Barbachano arduradunak. Elisabete Bereziartua eta Paloma Somolinos zaharberritzaileak aritzen dira harekin lanean.

Objektuak identifikatzea da lehen pausoa. Kalteak aztertu eta diagnostia egin ondoren, tratamenduari ekiten diote: «Erabateko analitika, argazki dokumentalak, dokumentuaren deskribapena, desmuntatua, garbiketa, orbanen tratamendua, txertatzeak, apresua, laminazio mekanizatua oso egoera txarrean daudentzat eta muntatua dira, besteak beste, jarraitu beharreko irizpideak».

gure bizitza instituzionala, politikoa, soziala eta kulturala adierazten duen altxor honetan, bera baita gipuzkoar asko eta askoren oroitzapen bizia».

Truchuelok eta honen tesi zuzendari Jose Ignacio Forteak, azkenik, lehenengoaren



Pedro Barbachano Artxiboko laborategiko arduraduna. MADDI SOROA

Barbachanoren esanetan, «obrak sendatzeko ez da artista izan behar, teknikoa baizik. Obra errespetatu eta bere horretan mantendu behar dugu. Dena dago zainduta, ezin

dugu inprobisatu». Dokumentuak, agiriak eta abar jatorrian ziren bezala mantentzeko Artxiboko teknikarien laguntza jasotzen dute zaharberritzaileek. ◀

tesiliburua aurkeztu zuten ekitaldian: *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*.

Artxiboen artxibo

Mendurrena ospatzean, atzera begiratzea ezinbestekoa

egiten da. Eta 1530. urtea da ibilbidearen abiapuntua: Zumaiako Batzar Nagusiek haien agiri originalen artxibo nagusia Tolosako Santa Maria parrokian jartzea erabazi zuten orduan. Eliza hartako gela eta leku desberdinetan egon zen,

1904an egungo egoitzara aldatu zen arte. 1902 hasi ziren lanak, eta 1904ko irailaren 8an inauguratu zen, Tolosako udaltxean egin zen ekitaldi jendetsu batean.

«Obrak amaitzean eraman zen Batzar Nagusietako eta diputazioetako dokumentazio historiko guztia. 1907an eta 1908an Korrejimenduren fondoa eta Tolosako notario-barrutiko protokoloen fondoa sartu ziren. Hiru artxibo horiek Gipuzkoako Artxibo Orokorra jatorria izango dira. Horregatik, Gipuzkoako Artxibo Orokorra artxiboen artxibo ere badela esan genezake», azaldu zuen, prentsarako bisita gidatua, Ana Otegi Artxiboko teknikariak.

7.000 metro linealeko edukiera du Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Egun, ia 3.500 beteta daude, eta urtero dokumentu berriak sartzen dira. Libro de los Bollones (1481-1505; Batzarre eta Aldundiak); Asteasu, Zizurkil, Villabona, Andoain eta Tolosa bitarteko bideen mapa (1782; Batzarre eta Aldundiak); Zestoako bainuetxearen planoak (1789; Korregimendua); Donostiako planoak (1877 inguruan; Fermin Lasala Collado, Mandaseko dukea) eta Xebe Peñak igotako mendien zerrenda dira, besteak beste, Artxiboaren «zenbait altxor».

Eginkizun nagusien berri ere eman zuen Otegi: «Agiriak biltzea, dokumentazioa antolatzea, zaintzea, zabalkundea egitea...». Hori guztia gauzatu ahal izateko honako zerbitzuak eskaintzen ditu Artxiboak: dokumentu eta agiriaren kontsulta, agiriari buruzko informazioa, liburutegi osagarria, agiriaren kopia, argitalpenak, argitalpen elektronikoak, bisita gidatuak, bekak lizentziatu berriei...

«Gure ondarea zaintzea eta mantentzea eta herritar guztiei ezagutzera ematera izan da beti gure helburua, eta belau-naldiz belaualdi pasatzeko eta guztion altxorra izateko jarraituko dugu lanean».



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaiten eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

MUSIKA ▶

Orfeoia, kontzertuetarako lanean

Gonbitea egiten die kantuan egitea gustuko dutenei taldean sartzeko

I. ETXEBESTE

Tolosako Orfeoia buru-belarri ekin dio ikasturte berriari, eta abendua bitarte izango dituen emanaldiak prestatzen ari da orain. Taldeak lan gogorra egin beharko du irailean urte bukaera baino lehen dituen kontzertuetako bakoitza behar bezala prestatzeko, eta «ilusioz» ari direla diote bertako kideek. Izan ere, Orfeoiko arduradunen hitzetan, duela sei urte, sortu zenetik, denboraldi

osatuena ari dira egiten. Rossini, Vivaldiren, Mozarten, Donizettiren, Belliniren, Verdiren, Heandelen, Bachen eta Mocoroaren obrak eskainiko dituzte Orfeoiko kideek emanaldietan.

Urriaren 9an izango dute lehena. Tolosako Leidor aretoan ariko dira egun horretan, eta opera zatiek osatu dute errepertorioa. Arieekin uztartuko dituzte, nolana ere: Sabina Puertolas eta Jon Plazaola izango dira aria horiek interpreta-

tuko dituztenak; sopranoa eta tenorea dira, hurrenez hurren. Gainera, eta Ramos Azkarate poetaren heriotzaren mendeurrena gogoan izateko, *Gal-tzaundi* obraren estreinaldia egingo dute Orfeoiko kideek kontzertu horretan; Juan Jose Ocon maisuak egin du lan horren bertsioa orkestrarako, eta lehenegoz eskainiko dute urriaren 9an Leidorren. Iruñeko Concerto orkestraren laguntza izango dute horretarako, Palacin maisuaren gidari-



Orfeoia Santa Klaran. J. SAIZAR

tapean. Beste kontzertuak Ordiziako parrokian (urriaren 30ean), Donostiako Kursaal-ean (abenduen 17an) eta To-

losako Leidor aretoan, Gabonetako kontzertuan (abenduen 23an) izango dituzte.

Taldea, zabalik

Tolosako Orfeoia Tolosako, Ibarako, Altzoko, Anoetako, Villabonako eta Andoaingo abeslariak osatzen dute egun. «Es-kualdea osatzen duten herri bakoitzeko ordezkari bana izan nahi dugu, hala ere, eta oraindik ez dugu halakorik lortu». Kantuan egitea gustuko duenari gonbitea egin die taldeak, horregatik. «Astean bitan entsegetara etortzea, bes-terik ez dugu eskatzen». 943 67 23 95 telefono zenbakian emango dituzte argibideak.

MUSIKA ▶

Hiru anaia, mila aurpegi

Asier eta Oroitz Unsain anaiek hainbat trikitixa txapelketa irabazi dituzte udan

IRATXE ETXEBESTE

Herriz herri antzerki emanaldiak egiten aritzen zirelako ezagutu genituen orain urte asko ez direla, eta berriz ere elkarriketatu egin behar izan ditugu. Antzezlanik egiteko ez diegu eskatu oraingoan, baina bai trikitixa eta panderoa hartu, eta pieza batzuk jotzeko. Asier eta Oroitz Unsain anaia tolosarrek hainbat trikitixa txapelketatan jardun dute udan, izan ere, eta horietako batzutatik txapelarekin itzuli dira etxera. Josuk, hirugarren anaia, *manager* lanak egiten dituela, herriz herri dabilta berriro. Plaza-gizonaren planta duela esaten omen dio-

te Oroitz, eta ez da harritzekoa, taula gainean jaioa ez, baina oholtzarako egina dagoela baitirudi. Asierrek, anaia zaharrena, urduri antzean irtetzen du jende aurrera trikitixa jo behar duen aldiro. Hala ere, Oroitzek antzean irtetzen duena anaia bikia, Josu, da hiruretan gaizkien pasatzen duena anaia lehiatzen diren bakoitzean.

Getariako eta Orendaingo trikitixa txapelketetan hartu zuten parte abuztuan, eta Zarauzkoan duela astebeite. Azkenengo bietan txapela jantzi zieten antolatzaileek Unsain anaiei, eta Getarian bigarren sailkatu ziren: «Oso maila altua izan zen Zarautzen, eta harriritu geratu ginen irabazi genuela



Oroitz, Josu eta Asier, atzo, HITZAKOOI eguna alaitzen. LEIRE MONTES

entzutean; ez genuen inondik inora espero».

Azaroan Zaldibarren izango den Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa finala dute buruan orain. Ez dira aurretik izango den kanporaketaren beldur, baina jakin badakite parte-hartzaile guztiak begira izango dituztela, eta horrek nolabaiteko ezinegona sortzen du, halabeharrez. «Zarauzkoa irabazita txapeldunak gu gara orain, eta denak guri txapela kentzera joango dira».

Anaia izaki, entsegu orduak antolatzea errazagoa behar lukeela irizten diote Oroitzek eta Asierrek, baina Josuk salatu egin ditu: «Etxean elkarrekin egoten gara beti, eta hori oso arriskutsua da: gerorako uzten da maiz orduan egin daitekeena». Dena dela, azaroa baino lehen beste lehiaketa batzutura joatekoak direnez, entsegu gisa balioko die horietako bakoitzak. Pieza berak jotzen dituzte txapelketa guztietan, «baina Euskal Herriko Txa-

pelketako finalerako ezberdina prestatuko ditugu». Koldo Iparragirre, Asierren trikitixa irakaslea laguntzen die kantua prestatzen, eta koplak, berriz, Angel Mari Peñagarikanok egiten dizkie: «Gai ematen diegu guk, eta hark osatzen ditu koplak».

Fandangoa, arin-arina eta porrusalda... Asierrek hauspoarekin astintzen duen doinu oro jotzen du Oroitzek panderoa hartuta. Baita kantatu ere, eta amaren laguntzarekin, irrintziak botatzen ikasi du. Txapelketa «bide polita» omen da jendaurrean azaltzeko, eta hori da Unsain anaiek gogokoena dutena. Itzaletik, Josuk esaten die hau eta bestea nola egin, eta tentuz erreparatzen dio anaiei lanari, trikiti doinuak jotzearekin bizitza bera jokoan jarriko balute bezala.

Kontuak kontu, goiza alaitu digute HITZAKOOI beste behin, eta hurrengorako zer ekarriko ote diguten hasi gara galdezka. Garbi dago zer edo zer asmatuko dutela. Bereziak direlako. Hiru izan, eta mila aurpegi dituztelako.

iragarki laburrak ▶



Aia. Baserría salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.
Aizarnazabal. 50.000 m²ko lursaila salgai.
Albiztur. Etxe rustikoa salgai, 3 solairukoa, solairu bakoitzak 120 m² ditu, eta 200 m²ko lursailarekin.
Anoeta. 2 eta 3 logelako etxebizitza berriak.
Anoeta. Etxe atxikia, garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garbikiarekin.
Donostia. Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m²-ko bulegoa salgai, banatzeko aukera.
Donostia. 104 m²-ko etxebizitza, Colon pasealekuan, bista zoragarriak dituena eta berritua.
Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baserría salgai; berrikuntza behar du.
Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.
Ibarra. 75 m²-ko pabiloia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.
Irura. 52 m²-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan.
Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.
Lasarte. Egoera bikainean dagoen 62 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.
Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baseri berritua.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloia, eraikuntza berrikoa.
Segura. Erabat berrituak dauden 60 eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.
Tolosa. Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukalde, bainugela eta trastelekuarekin.

ANOETA ▶

**Anoetarrak
Auzolaneanen
batzarra bihar**

Anoetarrok Auzolanean plattformak bilerarako deialdia luzatu die herritarrei. Batzarrean, 2003-04 ikasturteko balantzea egingo dute, eta aldi berean, aurrera begira ikasturte berriko laniloak zehaztuko dituzte. Elkartertzea bihar izango da, 19:00etan Anoetako udal-txean.

IRURA ▶

**Jubilatuentzat
Tolosaldeko
ibilaldia**

Irurako Zaharren biltokiak, Tolosaldeko ibilaldia antolatu du. Sei kilometro inguruko ibilbidea gauzatuko dute herriari zehar. Bertan, Tolosalde guztiko jubilatuak bilduko dira. Larunbatean 9:00etan ekingo diote bideari Irurako plazatik. Txangoa burutzen dutenek hamaitakoa izango dute ondoren plazan.

ANOETA ▶

**Liburutegiaren
ordutegia
plazaratu dute**

Irailan, Irurako liburutegiko ordutegia zerbait aldatu dute. Irailaren 7tik 10era, 17:00etatik 19:00etara egongo da irekita. Irailaren 11an 11:00etan irekiko dute eta 13:00etan itxiko dituzte atak. Irailaren 13tik 17ra 17:00etatik 19:00etara egongo da irekita, 18an berriz ere goizez irekiko dute, 11:00etatik 13:00etara. Irailaren 20tik 23ra 17:00etatik 19:00etara egongo da irekita. Irailaren 24an, 25ean eta 29an itxita egongo da festak direla-eta. 27an, 28an eta 30ean, berriz, 17:00etatik 19:00etara irekiko dute liburutegia.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Larunbatean izango da 9. Elikagaien Azoka Berezia. G. AZKUE

9. Elikagai Azoka Berezia abian da

Irrintzi elkarteak antolatu du azoka urtero bezala; larunbatean izango da

GARAZI AZKUE

Pasa dira jada zortzi urte Irrintzi elkarteak lehen aldiz Elikagaien Azoka Berezia antolatu zuenetik. Orduetik hona, azoka handitzen joan da eta saltzaile eta erosle gehiago hurbiltzen da urtetik urtera. Aurten 9. saioa izango dute.

Euskal Herriko txoko guztietatik etortzen dira saltzaileak; Iparraldetik, Gipuzkoatik, Nafarroatik, edota Arabatik produktu naturalenak ekartzen dituzte.

Iaz 35 bat postu egon ziren Villabonako plazan ikusgai; aurten, 40 inguru izango dira azokara etorriko direnak.

Azokako postuak ikusteaz

gain, lehiaketak ere izango dira larunbatean. Batetik, azokako postuen artean dotoreena hautatuko dute epaimahaikideek. Eta bestetik, elikagai azoka dela kontutan hartuta, isatsa prestatzeko lehiaketa jarriko dute abian. Inguruko elkarteetako kideak jarriko dira su inguruan janaria prestatzeko. Lehiaketa bakoitzean, hiru sari egongo dira. Iaz, sukaldeko proba Zizurkilgo Urkamendi elkarteak irabazi zuen; postu onenaren saria, berriz, Erzeilera joan zen.

Berrikuntza moduan, elikagai ez den postu bat egongo da. Villabonako eskulan taldeak, bere lanak jarriko dituzte ikusgai azokan.

ALKIZA/ZIZURKIL ▶ JAIK

Gaur hasiko dira jaiak Elbarrenan eta Alkizan

Alkizan meza nagusiak emango dio hasiera; Zizurkilen, txupinazoarekin hasiko dira

G. AZKUE

Prest dago jada guztia Zizurkilen eta Alkizan festei ongi etorrira emateko. Batean txupinazoarekin, eta bestean meza nagusiarekin emango zaie hasiera bost egun luze iraungo duten jaiak.

Zizurkilen, lehenengo txupi-

nazoa jaurtitzeko haurren esku egongo da, eta txupinazo nagusia Iñurriak blusako gazteek bota beharko dute aurten kultur etxetik.

Musikari dagokionez, Zizurkilen Jum-jum senegaldar taldeak alaituko du giroa eta Alkizan Larrañaga eta Ansorregi arituko dira.

EGITARAUA ▶ GAUR

ZIZURKIL

16:30. Haurren txupinazoa Atxulondo kultur etxetik.
17:00. Takolo, Pirritx eta Porrotx Joxe Arregi plazan.
Ondoren. Merienda eta buruhandiak.
20:00. Txupinazo nagusia Iñurriak blusaren eskutik Atxulondo kultur etxetik.
21:30. Herri afaria Joxe Arregi plazan Egarrri tabernak eskainita.

23:00. Jum-jum perkusio taldea.

ALKIZA

12:00. Meza nagusia.
14:00. Jubilatuen bazkaria Otsamendi jatetxean.
16:00. Haur jolasak.
Ondoren. Toka txapelketa herrikoia.
23:00. Ansorregi eta Larrañaga trikitilarietako erromeria.

VILLABONA ▶ KIROLA

Asteburuan Aizkardiko hurrengo irteerak

Larunbatean Hozatik Lizarara egingo dute eta igandean Lizaratik Candanchura

G. AZKUE

Aizkardi Mendi Elkarteak asteburu honetarako antolatu du hurrengo irteera. Larunbatean, Hozatik Bisaurinera eta handik Lizarara egingo dute. Igandean jarraituko dute ibilaldiarekin, Lizaratik Aspera

eta handik Candanchura egingo da. Izena eman ahal izateko bihar izango dute interesatuek azken eguna.

Bestalde, *Euskal Herriko hiriburuak* uztartuz ekimenari urrian emango diote Aizkardi Mendi Elkarteako kideek jarraipena.



ALKIZAKO UDALA

**FESTAK ONDO IGAROTZEA
OPA DIZUE HERRIKO GUZTIEI
ETA ETORRIKO ZARETENEI**

Festa Batzordea

San Martin enparantza z/g • 20494 ALKIZA • Tel.: 943 69 02 35

ALEGIA ▶ UDALA

Herriko kirol eta kultur taldeen inguruko hausnarketa

Herriko talde desberdinen arteko «elkarlanaren garrantzia» ezinbestekotzat jotzen da osatu den txostenean



Dantza taldea herriko kultur taldeen zerrendan aurkitzen da. M.JAUREGI

OLAIA ESKITXABEL

Alor desberdinak

Alegiako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek adostuta Itziar Arizmendi Uria dinamizatzaileak Alegiako kirol eta kultur talde desberdinen egungo egoera eta aurrera begirako plangintza jasotzen duen txostena burutu du sei hilabeteko lanaren ondoren. Uztailaren amaitsu zuen bere lana.

Alde batetik, herriko hamabi eta hamasei urte bitartekoan aisialdiaren inguruko azterketa egin du dinamizatzaileak. Bertan, herriko datu objektiboez gain, zuzeneko informazioa jasotzen da. Aralar Institututuko gaztetxoek galdetegi bat banatu zieten. Guztira 120 inkesta prestatu ziren; horietatik, 110 jaso zituen dinamizatzaileak.

Gaztetxoek eskari desberdinak egin zituzten galdetegian; herrian filmak ikusteko aukera izatea, irteera gehiago antolatzeta, gaztetxoentzako lokal baten beharra... ziren gehien errepikatzen ziren eskariak.

Jarduerak antolatzeko presuntasuna ere agertzen zuten inkesta osatu zuten gehienek.

Alegiako errealtatearen azterketa, balorapena eta ekintzen proposamena jasotzen duen txostena ere osatu du kirol eta kultur dinamizatzaileak «herriko kirol eta kultur talde desberdinen arteko elkarlana sustatzeko helburuarekin», zehazten da txostenean.

Ondorioak ere jasotzen dira; ahuleziak, indarrak, mehatxuak eta aukerak zehaztu ondoren, udalerrian garapen soziokulturala hobetzeko ekintza plana proposatzen da. Herriaren nortasuna, kontzientzia kolektiboa eta taldeen arteko elkarlana mantentzea eta hobetzea eta parte-hartzea, integrazioa eta gizarte kohesioa areagotzearen beharra zehazten dira, besteak beste, txostenean.

Amaitzeko, kultur eta kirol taldeek amankomunean osaturiko plangintza izatearen, Alegiako Kultur Orria deritzon aldizkaria dinamizatzearen eta taldeen arteko elkarlana sustatzearen garrantzia azpimarratzen da txostenean.

ONDORIOAK ▶

AHULEZIAK

- ▶ Haurtzaindegia falta eta beharra.
- ▶ A.K.O. aldizkaria kaleratzeko zailtasunak.
- ▶ Plangintza orokor baten beharra.
- ▶ Herriarren parte-hartze eskasa...

INDARRAK

- ▶ Alegiara bizitzera etortzeko joera.
- ▶ Ekipamendiak eta baliabideak izatea.
- ▶ LH eta DBH herriko ikastetxeetan eskaintzea.
- ▶ Talde ugari izatea...

MEHATXUAK

- ▶ A.K.O. eta beste hainbat talde desagertu daitezke.
- ▶ Herriarren parte-hartze geroz eta eskasagoa da.
- ▶ Turismoaren ikuspegitik ez da ezagutera eman herriaren potentziala...

AUKERAK

- ▶ Institutuoetatik haurtzaindegia martxan jartzeko eskaera aztertzea.
- ▶ Elkarretako kideek elkarlana bultzatzeko azaldu duten nahia.
- ▶ Kokapen, komunikazio eta zerbitzu sare egokia.
- ▶ Talde guztien lanari esker Alegiari ematen zaion oihartzuna...

ZIZURKIL ▶ UDALA

Ikastaroetarako irakasleentzako deialdia

Antola daitezkeen ikastaroak emateko irakasleen zerrenda osatu nahi du Udalak

O.ESKITXABEL

Zizurkilgo Udalak ikasturtean zehar antola ditzakeen ikastaroak emateko irakasle zerrenda osatzeko deialdia luzatu du. *Funky, hip-hop* eta haurrei zuzendutako antzerkia emateko begiraleen zerrendak osatu dira; horretarako, oinarriak argitaratu ditu Udalak.

Irakasleen izendapenak Euskal Funtzio Publikoari buruko Legearen hamazazpigarren Xedapen Gehigarrian zehazturiko moduan egingo dira, hau da, programa zehatz bat aurrera eramateko bitarteko funtzionari gisa.

Izangaien baldintzak

Ikastaroak emateko ezinbestekoa da FP2 edo antzeko titulua jabe izatea. Bestelako baldintzak ere bete beharko dituzte izangaiek: bigarren hizkuntza eskakizuna izatea edota maila baloratzeko as-

moz egingo den frogua gainditzea, hemezortzi urteak beteak izatea...

Eskari-orriak irailaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dira Zizurkilgo Udalak Aurrera plazako hirugarren zenbakian dituen udal bulegoetan; bertan egongo den eredu ofizialaren eta normalizatuaren arabera aurkeztu beharko dira.

Eskari-orriarekin batera NAN fotokopia eta curriculum vitae aurkeztu beharko dute interesatuek; bertan zehaztu ditzakete beren ustez lehiaketan baloratu beharreko merizimenduak (behar bezala egiaztatua egon beharko dira).

Lehiaketaren emaitza gis lortzen diren zerrendak Udaleko Ediktu Taulan argitaratuko dira eta baliozkoak izango dira helburu berdinarekin beste deialdi bat egin arte eta, gehienez ere, hiru urteko epea bete arte.

ALBIZTUR ▶

Errepidetik atera eta errekarera erori da auto bat

Tolosatik Albizturrerako bidean, GI-2.634 kilometroan, istripua izan zen atzo 10:15ean. Peugeot 306 markako auto bat errepidetik irten eta errekarera erori zen; berehala, suhiltzaileak bertaratu ziren zauritua suertatu zen emakumea eta autoa uretatik ateratzera. R.M.N.E. izeneko emakume legorretarrak zauri arinak zituen eta Tolosako Asuncion erietxera eraman zuten.

IKAZTEGIETA ▶

Zaborraren ordainagiria, bihartik aurrera

Ikaztegieta Udalak 2004ko lehenengo sei hilabeteko zaborraren ordainagiria irailaren 9tik urriaren 9ra bitarte izango dela jakinarazi du. Helbideratuta duten herritarrei urriaren 9an pasako zaie zenbatekoa kontutik; gainontzekoei ordainagiria «egunotan bidaliko zaie etxera» azaldu dute udaletxetik. Azken hauek udaletxean edota Kultxako bulegoetan egin dezakete ordainketa.

JAKOIN INGELESA

- 8 URTETIK AUERRERA
- MAILA GUZTIAK, AZTERKETA PRESTAKETA: (First, advanced,...)
- GOIZEZ, ARRATSALDEZ, LARUNBATETAN
- ENPRESETAN

P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA** Telf. 943-652372 (10-12 eta 4-8)

ATXULONDO



Ondo pasa
Zizurkilgo Jaiak!

Tel. 943 69 44 90
Elbarrena auzoa (Pasus)
20150 ZIZURKIL

IBARRA ▶ GIZARTEA



Fritada lehiaketa egingo dute Bizi-Nahi elkarteko kideek ostiralean. MARTA SAN SEBASTIAN

Bihar hasiko dira Ibarrrako jubilatzen eta pentsionuden festak

Igandea bitartean hainbat ekitaldi izango dituzte adinekoek; jokoak eta dantzaldiak izango dira ekitaldi nagusiak

INIGO TERRADILLOS

Ibarrrako Bizi-Nahi jubilatzen eta pentsionuden elkarteak bihar hasiko ditu urteroko jaiak.

Eguerdiko hamabietan izango da, hain zuzen ere, jaietako hasiera emango den bandera jasotzea eta txupinazoa. Une horretan hasi eta iganderarte hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izango dute Ibarrrako elkarteek.

Bihar arratsaldean, mahai jokoak izango dira eta gau partean izango da aipagarriena, jaietako erregina eta damen aukeratzea egingo baita. Ostiralekoan, goizeko ibilaldi neurtua eta arratsaldeko fritada lehiaketa azpimarratu behar

dira. Larunbatean, jokoek izango dute garrantzi gehien; goizean toka txapelketa ospatuko da, irabazleek garaikurra emango dutelarik eta ondoren indarberritzeko Ibarrrako tomate eta piperrak banatuko dira. Arratsaldean haurrek izango dira protagonista, berriantzat hainbat joko antolatzen baitituzte.

Igandea izango da azken eguna; Belabieta pilotalekuan izango den bazkaria eta ondorengo dantzaldia aipatu behar dira hemen.

Azkenik, txupinazoarekin amaituko dituzte aurtengo jubilatzen eta pentsionuden jaiak, adinak ondo pasatzearekin zerikusirik ez duela frogatuz.

EGITARAUA ▶

BIHAR (OSTEGUNA)

12:00. Jaietako hasiera,
16:00. Mahai joko txapelketa.
20:00. Jaietako erregina eta ohorezko damak aukeratzea. Segidan luntxa eta dantzaldia.

ETZI (OSTIRALA)

9:30. Ibilaldi neurtua, ondoren hamaiketako.
17:00. Fritada lehiaketa, ondoren afaria.

IRAILAK 11 (LARUNBATA)

11:30. Toka txapelketa, ondoren hamaiketako.
12:00. Mahai joko finalak.
18:00. Haur jaialdia. Txokotada, jokoak eta opariak

IRAILAK 12 (IGANDEA)

8:00. Diana, txistulariekin.
12:00. Meza hildako bazkideen oroimenez.
13:00. Trikitilari eta dantzarien emanaldia.
14:00. Bazkaria Belabieta kiroldegian, ondoren dantzaldia.
19:30. Jaietako amaiera eta azken txupinazoa.

BERASTEGI ▶

Ekitaldi ugari antolatzen dira irailarako

Gaztainondo jubilatzen elkarrekin tailer eta ekitaldi ugari antolatzen dituzte irailarako. Bihar, irailak 9, *Bizimodu osasuntsurako giltzarriak* izenburupean hitzaldia izango da 17:30ean Moira Cebereoren eskutik. Irailaren 21ean Nafarroako Azagra herrira bidaiara egingo dute, izen-emate Gaztainondo elkarrekin egingo delarik. Eta hilabete zehar tailerrak ere antolatzen dituzte.

IBARRALDEA ▶

KZguneak berriro ere zabalik daude hainbat herrietan

Udako oporraldien ondoren, berriro ere martxan dira KZguneak herritarrentzat. Belauntzan, 9:00-13:00 eta 17:00-20:00etara izango da zabalik. Tutorea hilaren 15 eta 29an pasako da goizeko 9:00-13:00etara. Leaburun, 9:00-13:00 eta ostegun arratsaldean 18:00-20:00etara. Tutorea hilaren 8an eta 22an pasako da 9:00-13:00etara. Oregan, Uli Mankomunitatean eskatu behar dira giltzak. Tutorearen bisitak hilaren 6an eta 30ean 9:00-13:00etara. Gaztelun astelehen, asteazken eta ostiralean 9:00-14:00etara. Tutorea hilaren 9 eta 23 izango da. Mintegietan parte hartzeko eta informazio gehiago: 943 68 22 28.

ELDUAIN ▶

Gaur amaituko dira Ama Birjinaren jaiak

Pasa den ostiralean hasi ziren Elduainen jaietan eta gaur izango dute azken eguna. Astelehena eta asteartea atsedenerako izan ondoren, indarberrituz egingo diote gaurkoari herritarrek, hainbat ekitaldi izango direlarik. Goizean, meza nagusiaren ondoren hamaiketako egingo da Urdelar biltokian. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izango dituzte ikusgai Elduaingo plazara gerturatzeko; Iparraldeko ariko dira herri kirolak. Jaietako amaiera behar bezain alai emateko, berriz, Joseba Iparragirrek eta Ander San Josek trikiti doinuak zabalduko dituzte, dantzarako tartea ere izango delarik.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ Tolargi: 65 00 16
▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
▶ Leitza autobus: 948 221015
▶ Taxis: 67 04 20
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa M.I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48.
Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoeta. 687 41 00 22
anoeta@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitza. 687 41 01 18.
leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ETXEBIZITZA

Anoetan. 3 logelako etxebizitza salgai. 207.000 euro. Telefona: 630 03 01 49.



ELDUAINGO UDALA

Jaiak bukatzeaz daude!
Ongi pasa azken egun hau!

udala@elduain.com • www.elduain.com
Tel.: 943 68 31 21 • Faxa: 943 68 35 18

LEITZA ▶ GIZARTEA



Atzo arratsaldean agurtzerakoan une hunkigarriak izan ziren. J. A.

Sahararrak atzo joan ziren Leitzatik

Zonaldekoek ere hemen hartu zuten Bilbora eramane zituen autobusa

JAIONE ASTIBIA

Atzo arratsaldean zuten egina hitzordua, zonaldera aurtan etorri diren 12 saharar umeak hartu dituzten familiek, hauek agurtzeko. Izan ere, egun batzuk lehenago abisatu baitzuten, Tinduferra eramane zituen abioia noiz aterako zen.

Hamabi saharar horien artean ziren noski, aurtan uda igarotzera Leitzara etorri diren bostak ere: lau mutiko eta neskatu bat. Eta horiek agurtzera joanak, besteak beste, hemengo familiak ere. Baita, hemen egon diren bitartean egin dituzten bertako lagunak ere. Argazki bat baino gehiago atera zituzten elkarrekin.

Bertara iritsi ahala, maletak autobusean sartzen zituzten. Esan zuten, ume bakoitzak 20 kiloko pisua eramane zezakeen gehienez eta aukera horretaz baliatzen dira familiak, kan-

pamenduak dauden Saharako desertuan negurako behar dituzten arropa eta oinetakoak bidaltzeko, hotz ikaragarria egiten baitu, eta hango familiarantzat beharrezko iruditzen zaiena igortzeko.

Urduritasunezko azken broma eta hitzaspertuak eginez egon ziren, denak elkartu eta autobusean sartu bitartean. Gehienak pozik zeuden, bi hilabete etxetik kanpo egon ondoren, hemen ere gustura asko egon dira, baina etxera itzultzeko gogoa ere bazutelako guraso eta senideengana. Baten batzuei ordea, gehixeago kosta zitzaizkien agurtzea. Baina bertan zeuden guztiak ere, hemengo familietan, malkoa bertan izan zuten.

Hurrengo uda arteraino agurtu ziren batzuk. Baina, beste batzuk esan zuten, lehenago joanen dira hara bertara, bisitan.

IRITZIA ▶
AMA HARTZAILEA

Elkartasun ikasketak goxoa da

Hitzetatik ekintzetara pasatu behar genuela Saharako arazo honetan eta, etxean tanteoa egin nuen oporretako plana jakiteko, haur bat hartzeko ohe libre bat behar bainuen. Etxeko bat egun batzuetan sofan lo egiteko prest agertu zenean, baiezkoa erabaki genuen. «Nik uste dut oso gauza ona egin behar dugula», esan zuen baten batek.

Eta horrelaxe etorri zitzaigun 12 urteko mutiko heldu hau. Gaztelaraz oso ongi hitz egiten dakien mutila tokatu zaigu, zintzoa, esanekoa. Batzuetan «zintzoegia», esaten nuen nire gogorako.

Oso nekatuta eta jateko premia ikaragarriarekin etorri zen. Lehenengo egunetan gaizki samar ibili zen, bai etxean, eta baita lagunekin ere, besteek elkar ezagutzen baitzuten. Bera zen arrotza taldean. Baina, guztion laguntzarekin, lehenengo parruxoak egin zituen eta gaur arte: lagunak deiadarka etortzen zitzaizkion, eta hantxe joaten ziren elkarrekin zarata eta zalapartaka. Oso zaratatsuak dira eta beti arabieraz hitz egiten dute.

Taldetxoarekin berriz, harrituta gelditu naiz. Oso haur alaiak, azkarrak, edukatuak eta batez ere, solidarioak ikusi ditut. Behin eta berriz esan izan dut: «zer esaten ote dute hauek, patxada horretan eta hain luze jarduteko?». Ikusten da bai, guk azaretik lantzen ditugun balore garrantzitsu horiek: elkartasuna, adiskidetasuna, konfiantza... oso ongi barneraturik dituztela.

Gauza asko erakutsi behar izaten zaizkie; beste zibilizazio bat azaltzen diegu. Baina benetan, ez da gutxiago guri erakusten digutena.

Ea ongi izaten diren eta errurik gabe jasaten ari diren arazo gogor hori ere, laister konpontzen den.

HEZKUNTZA ▶

Bihar hasiko dira umeak eskolan gure herrietan

Nahiz Areson, nahiz Leitzan ere, hurrengo hila arte goizez soilik izanen dituzte klaseak

J. ASTIBIA

Udako oporraldi luzeari agur esan eta, ikasleak bihar hasiko dira lanean Aresoko eskolan eta Leitzako Erletan. Irakasleak hasiak dira.

Areson hamazazpi ikasle eta Leitzan ehun eta laurogeita zortzi, goizeko bederatzietarako sartuko dira dagozkien geletan, eta neguko martxari ekin.

Edozein moduz, ikasturteko egunerokotasunera ohitzen joateko, hurrengo hila arte, goizez bakarrik dituzte esko-

lak. Zehazki Erletan urriaren lehendabiziko egunetik hasiko dira goiz eta arratsalde, ostirala izan arren. Areson berriz, urriaren 4tik aurrera, astea osatuz.

Biak hala bietan, aurtengo ikasturtean ordutegi aldaketa izanen dute. Alegia, iaz ez bezala, goizez 9:00etan dute sartzeko tenorea, 12:50ean ateratzeko; eta arratsaldetan, berriz, 14:50ean sartu eta 16:30ean aterako dira. Hori bai, asteazken arratsaldeak libre izanen dituzte, eguerdian, 13:00etan aterako badira ere.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Erleta eskolan Internet sarea jartzen ari dira

Iaz hamar ordenagailu berri iritsi ziren eta zenbait gelatarako moldatuko dituzte



Sarerako kable mordoak ikus zitekeen zeharbideetan. J. A.

J. ASTIBIA

Erleta eskolan, Interneta gero-ra, gela guztietatik erabili ahal izateko, sarea hedatzen ari dira.

Horretarako, Interneterako konexioak gela guztietatik egitea ahalbidetzeko, beharrezko kableteria jartzen ari dira, eskolako gela guztietan, bai ikasgela, eta bai bestelako liburutegi, irakasle eta bilera

geletan ere. Horrekin batera, zenbait gelatan ordenagailuak ere jarriko dituzte, zehazki haur hezkuntzako eta OHOko 1. eta 2. mailako geletan. Izan ere, iaz informatika gelarako 10 ordenagailu berri iritsi zirela adierazi zuten han bertatik, horrela han zeuden lehenengoak erabiliko dituzte gela horietarako, iristen diren heinean. Informatika gelan, berriak utziko dituzte, noski.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



